

2015

CASARES-TOMASENE KULTUR ETXEA

[donostiakultura.com](http://donostiakultura.com)

2015ean Casares-Tomasene Kultur Etxearen eskaintza eraginkorra eta kalitatezkoa indartu zen, eta era berean beste bide berri batzuk jorratu zituen programazioan, beti ere, laguntzaileen sarea zabaltzeari garrantzi handia emanez.

Dibulgaziozko ekitaldien artean, **Historiaurreko Jardunaldiak** nabarmendu ziren.

Aranzadi Zientzia Elkarteko Jesus Tapia eta Manu Zeberio arkeologoen laguntzarekin, historiaurreko tresnak eta teknikak ezagutzera eman ziren arkeologia esperimantal tailerren bitartez eta baita Txoritokieta eta Ametzagainako indusketak ezagutzuz ere. Gainera, Juan Mari Beltranen laguntzarekin garai hartako soinu paisaia irudikatu ahal izan zen.

Alta eta Harri Berri-Oleta ikastetxeekin antolatu ohi diren **Heziketa Jardunaldiak** inoiz baino parte-hartze handiagoa izan zuten, 2015ean. Jardunaldien helburua irakurzaletasuna suspertzea izan zen eta zeregin horretan zenbait eragileen eta laguntzaileen ekarpenak ezinbestekoak izan ziren, tartean, Pako Aristi, Lolo Rico, Imanol Mercero eta Iñaki Markotegi.

**Natur Astearen** harira, lehenengo aldiz, argazki rally bat antolatu zen, Altzako Historia Mintegiarekin elkarlanean. Emaizta oparoa izan zen eta erakusketa Altzako zenbait tokitan egon zen urtean zehar. Parte-hartzea handia izan zen eta kalitate maila ezin hobea.

**Literaktum** jaialdiari lotuta, aipamen berezia merezi du, **Almudena Grandes**ek Tomaseneko egoitzan emandako hitzaldia, aretoa lepo bete baitzuen.

Casares-Tomasene Kultur Etxeak kalera atera zituen hainbat ekitaldi, batik bat, maiatzetik urrira bitarte. Altzagaina izan zen, berriro, **Olatu Talka** jaialdiaren topagune. **Artisau azoka**, **Barrunbadau** taldearen kontzertua, **kaxoi flamenko tailerra** eta, zirrara handi sortu zuen, **Altaquillo** ikuskizunak, lepo bete zuen plazako harmaila. Antzerkia Klean zikloan, besteak beste, aipatzekoak izan ziren **Jam taldearen Minute** lana edo **The Funes Troup** taldearen ikuskizuna, Altzako kaleak, eszenatoki ezin hobea bilakatu baitzituzten. Zeramika Artean zikloa ere kalera atera da aurten bi ekitaldirekin: haurrentzako **Torno Tailerra** eta **Ignició** ikuskizun zeramikoa, Kataluniako David Rosell, Lluís Heras eta Ana Ballestéren eskutik.



Historiaurreko Jardunaldiak



Literaktum: Almudena Grandes



Jam

**Casares Irratiaren** 2015eko programazioa 25 irratsaioez osatu zen. 14 saio Arrosa sarearen bidez igorri ziren eta beste 21 Casaresen ekoitziak izan ziren, irrati-tailerreko partaideek, kolektiboek, irrati-ko lantaldeak edo sail-arte-ko lankidetzan sortuak. Casares Irratiaren harira, aipamen berezia merezi dute, urtean zehar, egindako saio bereziak, tartean, **Uhinetan**, DSS2016EUrekin elkarlanean, Easo kaleko Gunetik zuzenean; **Tango-gaua**, Larratxo Kultur Etxetik zuzenean emititutako saio berezia; eta **Isilpekoak: orri artean entzundakoen irakurketa ozenak**, Xabier Erkizia eta Arantxa Iturbek egindako irrati-performancea. Gainera, pieza labur eta originalen ekoizpena eta hedapena bultzatzeko **Hamaika Entzuteko!** I. Irrati-piezen deialdia antolatu zen. Nabarmenezkoa da, bide batez, interneteko entzunaldiak eta deskargak gora egin zutela. 2014an baino 4.000 entzunaldi eta 600 deskarga gehiago izan ziren 2015ean.

Joan den urtean Altzako Tokiko Bilduma egitasmoarekin abiatutako lanak aurrera egin dute aurten ere, eta ondorioz, egun, datu-basean **16.000 dokumentu** baino gehiago daude fitxatuak eta horietatik ia **12.000 web orrian** kontsulta daitezke. Kopuruak, beraz, nabarmen egin du gora.

Liburutegiari dagokionez, aipatzekoa da, bisita gidatuek izan duten harrera ona. Hortaz, 2015ean bisita kopurua zabaldu egin da, eta orotara, hogeitaz taldek hartu dute parte.

Bestetik, eta berrikuntza bezala, abuztutik aurrera, mailegu digitalaren zerbitzu berri bat eskaintzen hasi da Casares-Tomasene Kultur Etxean, e-liburutegia plataformaren bitartez. Zerbitzua hobetzeko eta erabiltzaile orori iristeko helburua ardatz hartuta, mailegatzen diren ebook kopurua handitu da 2015ean.

Bestetik, orokorki, liburutegiko bisitarien kopuruak ere emaitza onak izan ditu, goraka eginez.



Zeramika artean



Erakusketa



Larategian, Teatro Paraiso

## DATUAK

| JARDUERAK                        |         |                |
|----------------------------------|---------|----------------|
|                                  | KOPURUA | ERABILTZAILEAK |
| <b>GUZTIRA</b>                   | 497     | 20.082         |
| Antzerkia                        | 15      | 1.705          |
| Bideoa eta Zinea                 | 18      | 711            |
| Musika                           | 10      | 652            |
| Hitzaldiak                       | 32      | 1.394          |
| Ikastaroak eta tailerrak         | 109     | 1.639          |
| Erakusketak                      | 7       | 1.886          |
| Elkarteen bilerak eta jarduerak  | 263     | 10.538         |
| Aretoen alokairuak               | 1       | 78             |
| Liburutegiko jarduerak           | 40      | 699            |
| Dantza                           | 2       | 780            |
| <b>ZERBITZUAK</b>                |         |                |
|                                  | KOPURUA | ERABILTZAILEAK |
| <b>GUZTIRA</b>                   | 97      | 123.254        |
| Tomasene Liburutegiko bisitariak |         | 73.955         |
| Casares K.E. bisitariak          |         | 44.562         |
| Plus 55                          | 26      | 793            |
| Kzgunaea                         |         | 3.215          |
| IT Txartela                      | 71      | 729            |

Erabilera publikoko ordenagailuen kopurua: **Tomasene 9 + 15 kzgunaea**

**PRESTAKUNTZA  
EMAKUMEAK**

|                      | <b>GUZTIRA</b> |                | <b>Euskeraz</b> |                | <b>Gaztelaniaz</b> |                |
|----------------------|----------------|----------------|-----------------|----------------|--------------------|----------------|
|                      | Kopurua        | Erabiltzaileak | Kopurua         | Erabiltzaileak | Kopurua            | Erabiltzaileak |
| <b>GUZTIRA</b>       | 75             | 547            | 18              | 104            | 52                 | 438            |
| 2014/2015 ikastaroak | 35             | 270            | 9               | 57             | 26                 | 213            |
| 2015/2016 ikastaroak | 40             | 277            | 9               | 47             | 26                 | 225            |

**PRESTAKUNTZA  
GIZONAK**

|                      | <b>GUZTIRA</b> |                | <b>Euskeraz</b> |                | <b>Gaztelaniaz</b> |                |
|----------------------|----------------|----------------|-----------------|----------------|--------------------|----------------|
|                      | Kopurua        | Erabiltzaileak | Kopurua         | Erabiltzaileak | Kopurua            | Erabiltzaileak |
| <b>GUZTIRA</b>       | 75             | 270            | 18              | 65             | 51                 | 19             |
| 2014/2015 ikastaroak | 35             | 128            | 9               | 29             | 25                 | 99             |
| 2015/2016 ikastaroak | 40             | 142            | 9               | 36             | 26                 | 97             |

Bisitariak GUZTIRA: **118.517**